

Sei Argia Sari berri komunikazioaren aldarri

TXITXARDIN BELTXA, urtarrilak 29. Euriak ez du treguarik eman, baina bertara bildutakoek badute aterpea, lagunartera biltzeko arrazoa, hizketarako aitzakia. ARGIA Sariak 2010 dira. Euskal gizartearen eta kulturaren ordezkaritza zabala hor dago, euritik salbu, tan-tan pean, urteroko zitari hutsik egin gabe.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

“ADISKIDEEOOK, lagunook, lankideook, garbitzaileook, zikintzaileook, ipurdi milizkatzaileook...” “*Mirri eta Txiribiton!* Nahikoa da!”

Ezin zuen beste modura izan, *Txi-rrrk* bere bi lagunei errieta egin behar izan zien, eta horrela bukatu zen 2010eko ARGIA Sarien banaketa. Merezimenduzko saria merezita dutela ederki demostratu zuten Xabier Otaegik, Jose Ignazio Ansorenak eta Txema Vitoriak; berdin jartzen dutelako barrez nola haur bete frontoi hala kameraz betetako jatetxe dotore.

Urtero moduan, euskal kazetaritzako, kultur munduko eta gizarte nahiz politikako ordezkari ugari izan zen Txitxardinen ARGIA Sarien aurtengo edizioaz gozatzeko (ikus hurrengo orrialdean). Horien artean sarituak, jakina, batzuk urduri, gehienak inoiz baino gusturago... Goiko argazkian dituzue aurtengo saridunak. Itxaro Bordak, Prentsako sariaren irabazleak, ezin izan zuen ekitaldira agertu, baina saria eman ondorengo bere inpresioak bideoz jarraitu ahal izan zituzten bertara joandakoek. Saridun guztiek egin zituzten hitz batzuk eskerrak emanez

edota beren ibilbidea laburbilduz, eta baten batzuek unea aprobe txatu zuten ziria sartu eta bromak egiteko. Agin Rezola Irratiko sariaren irabazleak, esaterako, ez zuen aukerarik galdu; hara zer bota zuen Info7ko kazetariak: “Lankideek esan didate gehiegi ez harrotzeko, gero harrokeria hori garesti aterako zaidala... Baina total, zer pagatu beharko dut, “argia”ren faktura?”

Umorea eta giro alaia nagusitu ziren, beraz, aurtengo sarietan. Eta hori guztia errematatzeke, ARGIAko “koroak” emanaldia inprobisatu zuen, jatetxe osoa orfeoi erraldoi bilakatuz: *Prentsa libre bizia beti Argia! / Gora prentsa zaharra eta berria...*



2010eko ARGIA sarituak, ezker-eskuin. Zutik: Galder Gonzalez eta Nagore Vega (*Grebaorokorra.info*, Internet alorreko saria); Gotzon Garaizabal eta Mertxe Mujika (AEK-ko matrikulazio kanpaina, Publizitate saria); Jose Ignazio Ansorena, Txema Vitoria eta Xabier Otaegi (*Txirri*, *Mirri eta Txiribiton*, Merezimenduzko saria). Makurtuta: Fakun Aznarez (*Grebaorokorra.info*); Eriz Zapirain (*Zai zoi bele*, Telebista alorreko saria); Agin Rezola (Info7ko *Bostetako diligentzia* eta bertsolari txapelketako jarraipena, Irratia alorreko saria). Argazkian Itxaro Borda falta da (Prentsa alorreko saria).

Argia.com-en, zuzenean

Badira bizpahiru urte ARGIA Sariak bideoz ikus daitezkeela. Baina aurtent beste urrats bat eman eta lehen aldiz zuzenean ikusi ahal izan da ekitaldi osoa Argia.com-en. ARGIAko lankideek, Jexux Mari Irazuren laguntzaz, saio berezia eskaini zuten sarean jarraitu ahal izateko: sariaren banaketa, aurkezpenak, elkarrizketak... Paperezko prentsa eta Interneteko komunikazioa uztartzeko bidean pauso bat gehiago. ■

www.argia.com/multimedia
helbidean, sari banaketaren bideoa eta argazki-galeria.



(1): Bazkalaurreko *lunch* txikia. Lehen planoan: Joan Mari Torrealdai, Joxi Basterretxea eta Iban Arantzabal berriketan. (2): Nagore Vega, Iban Arantzabal, Mikel Iturria eta Gorka Julio. (3): Gonbidatuak ARGIAko zuzendari Xabier Letonaren hitzaldia entzuten. (4): Miren Legorburu eta Mertxe Colina. (5): Gorka Bereziartua ARGIAko kazetaria sari banaketaren bideozko zuzeneko emanaldia aurkezten. (6): Lehen planoan, Maider Egües eta Maria Gil. (7): Martxelo Otamendi, Iñaki Uribe, Joselu Blanco, Dorleta Alberdi eta Arantxa Kaltzada. (8): ARGIAko lankideak eta Miren Urbietta sopranoa ekitaldiaren amaieran kantuan.